

Azalaren memoria

Hamar urte inguru nituela hel-
duagoa zen mutil batek modu
jarraituan gehiegikeriak eragiten
zizkidan. Lagunekin ikusten nuenean
dardarka hasten nintzen, gaur ez me-
sedez, pentsatzen nuen. Baina debalde,
bere lagunei “*Voy a por ella*” esan eta
atzetik etortzen zen. Korrika joaten
nintzen baina segituan harrapatzen
ninduen. Bazterrean atzetik heldu eta
oso gogor estutzen ninduen “*Como gri-
tes...*” esaten zidan. Ez zuen beste ezer
gehiago esan beharrik. Orduan gorputz
guztia ukitzen zidan paretaren kontra
jarrita, buruz behera jartzen ninduen
hanketatik helduta... Lagunen artean
sortzen zuen beldurraren babesean,
bere boterea medio, inpunitate osoz
jarduten zuen. Orain tortura baten
moduan sentitzen ditut ekintza horiek
guztiak.

Hamar urteko haur batek sexuali-
tatearekin dituen harremanak bere
sexuaren esplorazioarekin dituenak
izan ohi dira, edo-eta bide horretan
inguruko lagunekin konpartitzen di-
tuen ekintzak. Adin horretan zikina
sentitzen nintzen, lotsatuta, nire errua
zela pentsatzen nuen, gauetan isilean
negarrez lokartzen nintzen. Fisikoki eta
psikologikoki oso zapalduta nengoen.
Egoera aldatzeko asmoz ihes egiteko



Nora Barroso

EHU-KO IRAKASLEA

@axala_n

Jazarpen baten historia da
hau, inguruaren isla dena.
Modu batera edo bestera
pertsona ugarik bizi izan
dute antzeko pasarteren
bat, forma ez da berdina
izango baina boterearen
gorputza bera da

modua eraiki nuen –bera baino biz-
korragoa izan behar dut, horrela ez
nau harrapatuko-. Eta hala egin nuen.
Trebatu nahian, korrika egiten nuen
eta toki guztietako eskailerak binaka
igotzen hasi nintzen. Lortu nuen eskai-
lerak ziztu bizian igotzea; nire borrarora

nekatu egin zen eta egoerei ihes ahal
egin nien.

Isilagoa bihurtu nintzela sentitzen
dut, begirada tristatu zitzaidan, amets
gaiztoak areagotu ziren; lokartzerakoan
beti gauza bera, norbaitengandik ihesi eta
ezin hankak mugitu. Gauza txar hori nire
sekretua zen, ezin nuen kontatu; hasieran
beldurratik, gero lotsagatik, ondoren
“ba, denbora asko pasa da...” Zama horre-
kin eraiki behar izan dut sexualitatea eta
nire buruarekiko dudaren maitasuna; hau
guztia pisutsua izan da oso.

Minak gainditzeko modu ugari daude,
ulertu ala ez errespetatu behar direnak.
Eta ulertu dut hamar urteko neskatila
hura dela gaur hemen idazten ari dena,
biharko emakumea ere badela gaur he-
men dagoena, gaur ez naizela atzo bai-
no ausartagoa eta momentuan barruari
begiratzeko eman diodan aukeran egon
dela gakoa nirean, bizipenak metatu
ahala irtenbideak eraldatzen joan direla
eta harro nagoela korri egiteko eraba-
kia hartu izanaz, lehenengo segundotik
hasi zen iraulketa.

Jazarpen baten historia da hau, in-
guruaren isla dena. Modu batera edo
bestera pertsona ugarik bizi izan dute
antzeko pasarteren bat, forma ez da
berdina izango baina boterearen gorpu-
tza bera da. ■

ARGIAren buletin@

Orain gaika ere bai:
feminismoa, euskara,
herri mugimenduak,
kultura, ekonomia soziala...



Sartu eta aukeratu
zure informazioa:
www.argia.eus/buletinak

ARGIA